

Inken lorratzak

Milaka gorpu momifikatu topatu dituzte eta Hego Amerikako zibilizazio zaharra ezagutzeko urrats handia izango da

IDURRE ESKISABEL

Arkeologo talde batek aurkikuntza handia egin du Perun: 1480tik 1530era bitartean momifikatuta hilobiratutako milaka gorpu aurkitu dituzte Limatik hurbil-hurbil. Zehazki hiriburuaren kanpoaldeko Tupac Amaru auzoan egiten dute aurkikuntza, 70eko hamarkadan eraiki eta zabaldutako txabola inguru batean. Inken zibilizazioko azken arokoak dira gorpu gehienak, gutxi gora-behera duela 500 urtekoak, baina tartean askoz ere zaharragoak badirela uste dute aurkikuntza egin duten taldeko zientzilariek, baita kristo aurreko 200 urte ingurukoak ere.

Guillermo Cock arkeologo peruarra izan da arkeologo taldea gidatu duena, eta Peruko Kultura Institutu Nazionalaren eta National Geographic Society erakundearen laguntza izan du.

Orain arte, 2.200 momia inguru atarra dituzte lurrazpitik, baina guztira, hamar mila bat egongo direla uste dute. Azken batean, Lima ondoan aurkitu berri dutena Inken azken aroko hilerri nagusietako bat zela uste du aurkikuntza egin duen zientzilaria taldeak, ziuraski, handiena.

Inken zibilizazioa, Hego Amerikako handienetako bat, 1530 inguruan de-

sagertu zen, espainiarrak iritsi eta bertako biztanleak suntsitu zituztenean. Zibilizazioa erabat desagertarazi aurretik, gainera, beren kulturako ezagutza nagusiak hondatu zituzten konkistatzaile espainiarrek.

Momifikazioa debekatu

Esate baterako, erlijio Katolikoaren irizpidiekin bat ez zetorrela-eta, debekatu egin zieten hilobiratu aurretik gorpuak momifikatzea; areago, inken hilerri asko txikitu egin zituzten. Horregatik, hilerri honen aurkikuntza oso garrantzitsua da, orain arte, horrelako aztarnarik topatzea gaitz ikusten baitzen. Finean, inken zibilizazioa hobeto ezagutzeko datu handiak lortuko direla espero dute zientzilariek.

Izan ere, momifikatutako hilotzen artean inken gizarteko talde guztietakoak daude: aberatsak eta pobreak, gazteak eta zaharrak. Gainera, oso ondo kontserbatuta daude: buruko zapi lumadunak eta guzti ageri dituzte oraindik batzuek. Inken hierarkian nagusi zirenek eraman ohi zituzten lumak buruan.

Hilobietako batzuetan familia osoak ageri dira elkarrekin: gurasoak, umeak, zaharrak... Guztiak hobeto kontseba zitezten oihaletan bilduta. Jantziez gain, bitxiak, armak, ontziak

Tupac Amaruco hilerrian aurkituko garezur bat. Lumadun zapia du buruan. • EPA



eta bizi zirenean maite zituzten beste zenbait gauza dituzte alboan. Gutxi gora-behera 50.000 tresna inguru aurkitu dituzte Tupac Amaru herriskako inken hilerrian. Jatekoa eta animali larruak ere bai.

Kasualitaterik ez

Nolanahi ere, *Algodoiaren Erregea* deitu dioten gorputz momifikatuaren aurkikuntzak sortu du harridura handiena. Izan ere, 150 kilo inguruko algodoi geruza astun batean bilduta zegoen hilotz hori. Halaber, tartean-tartean badira inken jauntxoek momiak ere, jantzi aberats-aberatsak dituztela. Haien inguruan bizi zirela zerbitzari izan zituzten hainbat lagun daude hilobiratuta, jauntxoa hiltzen zenean, haren mendeko laguntzaile hurbilak hil egiten baitzituzten beste mundurako bidaian buruzagiak babesari izan zezan.

Aurkikuntza egin duen arkeologo taldeak azpimarratu zuenez, Tupac Amaru auzoko hilerria topatzea ez da kasualitatearen emaitza izan, baizik eta urte askotako ikerketaren emaitza. Susmoa, nonbait, aspalditik zetorren.

Izan ere, inguruetak jendeak lehenetik ere egin ditu zulaketak inguru horretan, eta gorpuez gain, bitxiak eta bestelako tresnak aurkitu.

Peruko Kultura Institutuko ardura-dunek azaldu zutenenez, lapurretari bat baino gehiago egin da hilerri horretan, zulaketa handi samarren arrastoak aurkitu baitituzte orain.

Lan arkeologikoak amaitu dituzte jada, eta orain, gorpuak aztertzen hasiko dira ADNarenaren tankerako teknika moderno bidez. Bitartean, Tupac Amaru auzoko bizilagunei eman diete hilerria zaintzeko ardura inork lapurretari egin ez dezan. Peruko Kultura Institutuko buruzagiek, ikerketak eta indusketak iraun duten denbora guztian auzotarren emandako laguntza nabarmendu dute.

XV. mendean, espainiarrak iritsi aurreko garaian, hedadura handiko inperioa zuten inkek: hain zuzen ere, egungo Kolonbiako, Ekuadorko, Peruko, Txileko, Boliviako eta Argentinako lurak hartzen zituen haien herriak. Peruko Cuzko hiria zen inperio handi horren hiriburu aberats eta aurreratua.

Guillermo Cock arkeologo peruarra momietako bat aztertzen... • JOHN LIVZEY / EPA

